

KEPA ANDONI ORMAETXEA, AGAKIAREN EGILEA
(Haur didaktikari buruzko lan honen azterketa)

Gregorio Arrien Berrojaechevarría

1. EGILEA ETA BERE LANAK

Lan honi buruzko garapen saio sakonago eta zabalagoa ahal bezain laister egiteko asmorik baztertu gabe, oraingo hontan, proposatutako epe eta mugetan, AGAKIA den bezalako haurrentzako lan garrantzitsuari buruz zerbait idaztea nahi nuke, helburu bikoitza begibistan dudalarik: Batetik, gai hauetaz euskaraz idatzi zen lehenbiziko lan honen garrantzia azpimarratu; eta bestetik, honi buruz dabiltzan errakuntzak baztertu, lanaren egiazko egilea nor den azpimarratuaz. Behin baino gehiagotan irakurri izan dugunez, lan hau Azkuek edo bere garaiko beste euskal idazleren batek eginikotzat jo izan da.

Esku artean ditugun bibliografi textuetan, ene ustez bidegabeki, agertzen ez den Ormaetxearen izena oso kontutan hartzekoa dela iruditzen zait, izan ere, geroago esango denez, idazle aski ugaria izan bait zen eta bizkaitarren herriko euskara aski ongi menderatzen bait zuen. Agian, euskal ortografiari buruzkoan ezin diezaioke zuzentasun handiagorik eskatu, berak idazten zuen garaietan gaurko arau gramatikalak egiten ari bait ziren. Guretzako garrantzitsuena, hogeitamar urtetan zehar asko idatzi zuela, hil bezperan ere idatzi egin zuela jakitea da, eta azpimarragarriena, haur didaktika literaturaren Historia ikuspuntutik benetako lan interesgarria uztea.

Biografiaz eta literatur lanari buruzko datuak

Bere biografiari atxikirik, Ormaetxea Foruako herrian jaio zela esan behar dugu, Gernika ondoko herritxoan; seirehun bat biztanleko herritxoan; bere bataioko Agirian irakurten denez, 1862ko apirilaren 28an jaio zen, eta bere izen osoa PEDRO ANTONIO ORMAETXEA GUILLIZ eta ORTUZAR zen. Bere ama Ereñokoa eta bere aita Foruakoa, biak, zer esanik ez, euskaldunak. Ea ez dakigu ezer Foruako bere familia eta eskola giroari buruz, ezta ze ikasketa egin zituenik ere. Honi buruz, bere haurtzaroan kristau-ikasbidea ikasteaz dakarren aipamen laburtxo bat besterik ez dugu jaso bere idatzietan:

“Ni, gastetxua nintzarian, euzkera orduan oituten zanian, Dotriña Kartillia esaten yakona ikasi neban” (1)...

Geroago, XIX gizaldiko bigarren erdialdiko euskal herri txikietako beste hainbeste gazteren antzera, seminariora abiatzen da 1886ean apaiz egiten delarik. Hortik aurrera Amoroton agertzen zaigu bere izena, 1894 bitartean apaizlaguntzaile lanetan, eta urte horretan, jakin izan dugunez, bertako bikarioa hiltzerakoan, parroku bezala (2).

Nahiz eta, berak esaten digunez, urte batzuk aurreragotik Euskal Herriko euskal eta kultur mugimenduekin harremanetan bizi, 1894ko urte hontatik aurrera abiatzen da umeentzako eskola bat jaso eta agakatzoren bat idazteko asmoak lantzen. Urte hontan bertan hiltzen da herrian zuten maisu euskalduna eta ordezkari maisu erdalduna agertzen zaie.

Dena den, ez zen luzaro egon Amoroton, zehaztu ezin izan ditugun errazoiak bide, aurki aldatu zuten; 1901 inguruan bere parrokia utzi eta Ajangizera aldatu zen apaizlaguntzaile gisara eta maila horretan iraun zuen bere heriotzara arte (3). Ajangiz eta bere auzoek, Ormaetxeak behin baino gehiagotan idatzi zuenez, XX gizaldiaren haseretan ez zituzten zortzirehun bat biztanletik gora; udal txikia, beraz, Gernikatik gertu, eta biztanlerik gehienak nekazariak.

Dakigunez, bere literatur eta kultur lana ez zen murriztu tokiz aldatzeaz, eta urte batzuetako isilaldiaren ondoren, areagotu egin zen Bizkaiko “Jaungoiko-Zale” elkartearen sortzerakoan; 1912an edo egin zen elkarte horretakoa. Euskal apaiz eta idazleen arteko elkarte gogoangarri honen helburuetan bat: “euskaldunei euskaraz” ebanjelioko dotrinak eta ohitura onak irakatsi eta ematea zen, eta beste batzuen antzera, tresna bikaina zuen “Jaungoiko-Zaleren” bitartez lan egiteko (4).

Ezin ahaztu garai hauek baino lehenago ere Euskalzale eta Euskal Esnalean idatzia zenik, eta azken honetan, hain zuzen ere, argitaratu zuen 1909an guretzat oso interesgarri den lantxoak; lan horretan AGAKIAREN sorrerari buruz

(1) ESATALDIA, in Jaungoiko-Zale, 1918, garila 15, 131 or. 102 zn. VII urtea.

(2) Ormaetxearen biografi zertzelada batzuk jakin nahirik, apaiz zerbitzuetan aritu izan zen Amoroto eta Ajangizera jo dut. Eman zidaten erantzunetik, ezezaguna zutela ikusi dut. Bizkaiko bibliofiloek ere ez zuten ezagun zelako Ormaetxea hau. Eman nien ideari jarraiki, artxiborik artxibo eta aldizkaritik aldizkari abiatuak, beharrezko nituen datu interesgarri batzuk eskuratu zizkidaten.

Nahiz eta pertsonaia hauekin harremanak egiteko 1986ko Eguberri aurretiko asteburu batzuk eta idazteko Gabon-oporraldia eman beharra izan, gizon hau kaleratzea lortzen badut, ongi emanak izan bitez joan-etorri guztiak. Mila esker laguntzaileoi, batez ere, Amorotoko parrokiako arduradun den Angel Sustaeta apaizari, aparteko esker on agiria.

(3) J. M. Rementería eta Juan Izagirre apaizek ahozko informazio bikaina eskaini didate Ormaetxearen Ajangizko egonaldia buruz; Juan Izagirrek ezagutu ere egin zuen gure egilea, berak dionez, bizitza latza zeraman, kultura handikoa zen, irakurgai luze sakonak egin zalea, eta bere gauzetan taxutua eta sistematikoa. Bere garaiko euskal kulturako gizon handi ziren Askue eta Karmelo Etxegarairekin ere adiskide mina.

Rementería jaunak, Gernikaldeko Bikario Generala eta Ajangizko parrokiako arduradunak, bere zeregine artean jaso dituen berri guztiak eta azkenik, Ormaetxearen Hileta Agiria eskuratu dizkit. Biei eskerrik beroenak.

(4) Izen berdina zuen apaiz taldearen aldizkari hau, haseretan hilerokoa izan zen; 1932ean EKIN izenekoz ordezkatu zuten asteroko bihurturik. 1936an desagertu zen.

koak dakartza, beste ingurumari eta zertzeladen azalpenak bide batez gisara ematen dizkigularik (5). Ea hamabost urte ziren liburuxka argitaratu zenetik, eta denborak ematen duen ikuspegia bitarteko, oso ongi oroitzen zituen alde-rik azpimarragarrienak. Baina ez zizkigun, ikusiko denez, berari buruz eta argitaralpenari buruz nahi genituzken guztiak idatzi.

Bere idazlanak adi irakurriaz konturatzen garanez, gizon kultoa zen, lan historikoen irakurle porrokatua eta Euskal Herri eta Estatuko zenbait historia pasarteren ezagutzaila; bere garaiko teologia teoriak ere ongi ezagutzen zituen. Bere bizitzako azken aldiko idatziei buruz, eta .titulu eta eduki guztiak banan banan aipatzerik ez dugularik, gaika emateari ekingo diogu, honela sailkatuaz:

— Funtsean teologia eta pastoral ekintza edukiari buruzkoak (Pazko Jau-nartzea eta kristau ohiturak...).

— Historia eta etnografiako gaiak.

— Etimologia eta hitzen fonetika bilakaerari buruzko gaiak (6).

— Kezkuntza eta erlijio irakaskuntzari buruzko gaiak.

Nahiz eta Ormaetxearen lanean zehazki hezkuntzari buruzko titulurik aurkitu ez, kasu konkreturen batetik aparte, bere funtsean maiz agertzen dela hezkuntza arazoa esan behar; hari hontatik irakaskuntza eta hezkuntzari buruz-ko datu interesgarriak ematen ditu, adibidez, guraso eta maisuen derriorrezko hezkuntza lanari dagokiola, bere garaiko maisuren batzuek eta Canalejas-en Gobernuak erlijio irakaskuntzari buruz dituzten asmoetaz zalantzak jartzen dituenean:

“Geuk beti ezin irekatsi geinke, beste ardura asko egoten direlako. Ortik eñienten (maestro) eta gurasoen egikizuna. Eñientak eta gurasoak *ume euzkeldunari irakaskuntzia euzkeraz erakutsi biar leuskijoe, euzkera eñiten dan erijetan*, zaspí une baino len eñientak ume euzkaldunari erderia ezin irekatsi leikijoelako, ta erderia eztakijen umiari, gastelazko izketan irakas-kuntzia erakustia gauza alperrikoa da.

Emen orantzurarte eñijek autu eta izentau ditue eñientak (maixuak). Ore-tarikoak dagozan eñijetan irakaskintzias ondo dabis, nik ezagututen doda-zan lekuetan. Bestelakoak dagozan lekuetan gurazo eta elexgizonak egin biarko dabe alegiña, naita eurak zerbait egin.

Eñientok jaretsi eidabe *gobernuen* eskuetan jartia. Zegaitik edo agaitik egin-do eben. Bierñune ederá! Toledoko Agiré janskordunak (cardenalak) jakin eban *gobernu* ofek irekatsi-gauzetan uste ta asmo txárak dabizela, ta bere ta menpeko *obispo* (gotzai) gustien izenian Canalejasi eskatu dautso *erlijio-noko* gauzak ikastegijetan (eskoletan) erakusteko aginduten daben *legerik* eztaijela kendu” (7).

Bere heriotza baino hilabate batzuk lehenago Ajangiz bertako eskola nazio-naletatik gurutzea zelan kentzen zen ikustea tokatu zitzaion; orduan gatz apurren batekin honelako hau idatzi zuen:

(5) “Agakia. Zelan sortu zan” izena darama lan onek, in: Euskal-Esnalea 1909, orrilaren 15^an, 107 or. 17 zn. II urtea.

(6) Ormaetxea bere abizenari buruz ari delarik, Ormetse erabiltzea nahiago duela dio, eta ez Ormaetxea, Ormetxe edo Ormetze; Ormetse jatorragotzat dauka (Ikus Ormetse: in Jaungoiko-Zale 1923, dagonilaren —1,180 or. 223 zn. I urtea.

(7) Ormetse’tar’ P. A.: Jabiartar Prantzisko Santua ta irakaskintzia. In: Jaungoiko-Zale 1912, iraila-1.4 or. I zn. I urtea.

“Gure Alejo, maixua, oso bildurrez egon da kurutzia kendu esik goietatik kastiguren bat etóriko yakola ta, eta zelanbaiten biotza úratu yako, baña azkenez kendu dau. Alejok *a lejos* bialdu dau. Kontuen euki gero au Alejo, zeuk be egunen baten *a lejos* juan bearko dozu-te” (8).

70 urte zituelarik hil zen Ajangizen 1932ko apirilaren 18an. EKIN, bere aldizkariak, argitaralpen honen ikuspuntutik bere idazle bizitzaren laburpen zen ohartxo bat eskaini zion; ohar labur eta mamitsua denez, horra hor nota osoa:

“Ormaetxea'tar Kepa A. Jauparia il da. Eta bizi izan zalez il be. Jaungoiko-Zale bizi. Jaungoiko-Zale il (G.B.). Baskuna au sortu zan ezkerotiko baskide eta idazlea genduan. Ainbeste idazti dira, or-emen, gure orrialdeetan, bereak “Otarka” ixil-izenez eskutauta. Ilgo zan bañi iru egun aurérago ikusi genduan, eta gugaz eukazan kontu apurak garbitu ondoren, Jaungoiko-Zalen asmoetan “Ekiñean-ekiteko” agindurik, beste mundurartean agur egin euskun. Jaungoikoak bere lan apostolutar guztien ordañez zeruan artuko ebalá uste dogu. Baña, baldin bearízanez balego, bere arima alde, baskide eta irakurle guztiak otoi dagigun” (9).

II. BERE AMOROTOKO EGONALDIA

Beste ikuspuntu batzuk utzirik bere Amorotoko egonaldian kokatuko gara soilki, gorago ikusia dugunez, hementxe garatu bait zituen bere lehenbiziko apaiz lana eta bere lehenbiziko euskal idazle ekintza. XIX gizaldiaren azken hamarkadan gaude eta honelako ohar eta iruzkinak egin nahi dizkiogu.

Gizaldi honen haseretan ere Amoroto Bizkaiko ekialdean kokaturiko udalherri txikia genuen, Markina, Mendexa, Murelaga eta Gizaburuaga mugakide zituelarik. Hamairu km² eta piku lurrez eta zazpirehun bat biztanle, gehienak nekazariak eta basarri sakabanatuetan bizi zirenak.

Herri txiki hontako gizon batek esperientzia berezi bat darama praktikara, baina esperientzia hau ezin da, inola ere, une hartan zebilen euskal literatur mugimendutik aparte utzi, ikusiko dugunez Ormaetxeak urte batzuk lehenagotik parte hartzen bait zuen bertan.

XIX gizaldiaren azkenetako bernazimentu literarioa

Hirurogeitamargarren urteetatik aurrera, eta XIX gizaldiaren bigarren erdialdi osoa zehar, euskara eta euskal kulturari buruzko kultur egarri bizi baten bersorrera baten aurrean aurkitzen gara Euskal Herrian. Paralerroki, gaztelera eta gaztelera zko letren inguruan ere bere historiako unerik bizenetarikoa bizi dute.

Euskara eta euskal kutur mugimenduaren gidari gisara Arana, Azkue, Campión, Urkixo eta beste batzuk ditugula esan behar. Goi mailakoak guztiak ere. Aranaren ideak ezagunak dira: euskara bertaxutu eta garbitzea nahi zuen.

(8) Otarka: Estaduko eskolak. In: Ekin 1932, otsaila 6an, I urtea.

(9) Gure aizkideak. In: Ekin 1932, otsaila 6an, I urtea.

ortografia, lexiko eta gramatiko alorretan erizpide garbizaleak zituelarik. Azkue, bere aldetik, gizon polifazetiko eta oparoa inor izatekotan, gai-lor ugari eta euskal metodo moderatuagoetan gailendu zen. Idazle bezala 1874an abiatu zen Campionek, lan literario handia egin zuen, Asociación Euskara de Navarra (1877) eta Revista Euskara aldizkarien sorreran partaide izanik.

Egin zuten lan garrantzitsu eta ugariaren aipamen eta azterketak alde batera utzirik, aipaturiko hiru idazleok hirurogei hamarkadan jaioko direla azpimarratu, Campion eta Azkue 1864an jaio bait ziren eta Arana 1865an. XIX gizaldiaren bukaeran euskal kulturako hiru gizon gailen genituen, bakoitza bere bide berezi eta pausoak jarraituz helmuga hortara iritsitakoak.

Nahiz eta ezberdintasun nabarmenak egon beraien artean, baita euskara eta Ortografia sailetan ere, baina ezberdintasun guztiok gorabehera, bazituzten adostasunezko alor handiak ere. Adibidez, euskararen egoera larriaz eta gaztelera hutsez irakasten zen gaztelera zela Euskal Herria deseuskalduntzen zuenari buruzkoetan, bat zetozten beraien azterketak. Zentzu honetan, hirurok dituzte antzeko ideak maisu erdalduak egiten duen lan kaltegarriari buruz, hori dela eta hizkuntzaren hondalari eta ohitura eta sinismen garbien aurkako gaitz bezala jotzen dutelarik. Ezin gara lar luzatu azterketa honetan, baina ezin isildu puntu honi buruz Azkuek egindako “Vizcaitik-Bizkaira” zartzuelea, gaztediaren usteltzaile eta hizkuntzaren birrintzaile bezala jotzen den erdal maisuaren eredu eta karakterizazioa bait da.

Eskola Instrumentum Regni gisara hartuz zituzten ideetaz, eta erdararen jario indarrak gutxitzeko proposatzen zituzten irteeretaz luza gintezke. Baina guzti hoiek beste batetarako utzirik, praktika alorrean konkretuki egin zutenera joko dugu. Hari hontatik, Azkuek, jakina denez, euskal eskola bat sortu zuen eta Aranak euskaraz irakurtzen eta idazten irakasteko idaztino bat idatzi. Beraiek izan ziren liburu eta material pedagogiko batzuk landu zituztenak ere.

Azkuek sortu zuen euskal eskola, Jardines de Bilbao kalean egon zen 1896tik aurrera, eta Aranaren lan didaktikoa, bere titulu osoa “Umiaren Lenengo Aizkidia”, 1897an kaleratu zen.

Ondoren ikusiko dugunez, bioi aurrera hartu zien liburutxo bat idatzi eta eskola bat sortu zuen Ormaetxeak.

Liburu berria

Bidean aurkitu zituen eragozpen eta zailtasun mordoa gaintuz abiatu zen Ormaetxea bere AGAKIA idazten. Gai honi buruz eta hau eta beste arazo batzuk ezagutzeko, badugu zorionez egileak berak egindako idatzi-informea, urte batzuk geroago bere lanaren sorrerak azaltzeko edo idatzia; lana egiteko izan zituen kanpotiko zioak, idaztera bultzatu zuten gertuko zioak eta egitera-koan aurkitu zituen zailtasunak ematen dizkigu (10). Goazen pausuka.

Lehenengo eta behin, lanaren aurretiko kanpoko zioak aipaturik, honelako honen oroitza du Ormaetxeak: 1888 inguruan edo, beraien bilera eta elkarrizketetan haur euskaldunei euskaraz nola irakatsi gaia aztertzen zutela; haur gaztelarrak irakaskuntza gaztelerez hartzen badute, euskaldun haurrak zergatik ez dute irakaskuntza euskaraz jasotzea nahi izan behar?

(10) Ikus: Agakia... In: Euskal-Esnalea, 107-110 or. orrilaren 15'ian, 17an, 2 urtea.

Idea eta asmo hauek bultzaturik, bilera batzuk egin zituzten Bilbon eta Euskal Herriko beste lekuren batzuetan; aldi hontan Sabin Aranakin harremanak izan zituela eta idea hauetaz bere oharrak ere bidali zizkiola oroitzen da; 1895an Gipuzkoako Diputatuek eskoletan euskaraz irakatsi beharrari buruz idazki bat landu zutela oroitzen da, eta Nafarroa, Araba eta Bizkaiko diputatuek ere idazki bera onartu egin zutela.

Guzti hontatik ikusten denez, bazen aldi hontan euskal irakaskuntzaren aldeko mugimendu bat, baina ez zihoan aurrerago. Praktikan ez zen ezer aurreratzen. Ez zegoen libururik, ez zen euskal eskolarik sortzen.

Une hontan izan zen Ormaetxeak bere kabuz eta bere ahalpidez aurrera egitea erabaki zuena. Behin eta berriz aipatu dugun idazti horretan ematen dizkigu aurrera egiteko izan zituen zioak, dotrina eta erlijioaren irakaskuntzarekin harreman estuan zeuden zioak, noski, eta erdaraz ikastera beharturik zeuden haurrak asko atzeratzen zirela eta ikasitakorik ea ez zutela ezer ulertzen ikusten zuelako.

“Oneskero esan biar dot, euskaldunari euskeraz irekatsiteko ustia nundik sortu jatan. Umiari irekatsi biar izaten neutsen dotrinia, neure eginkizunak betetako. Orretan ikusten neban batzuk atzeriak (atrasados) egozala, eta bat bera bes, nik nai neban bestean.

Gatx ori nundik etorren jakiñ gurarik, neure ustia atzenian elduten san ataratera, umiak orrelan egotia etorrela geijago be, euskeraz lenengotik gorako gustia es irekastetik” (11).

Kosta ahalak kosta, guztiei euskaraz irakasteko idea argi eta garbi zuelarik, lanerako material eta tresnarik gabe sentitzen zen. Euskarazko liburuak behar zituen. Nondik atera baina? Oinarri-oinarrizko liburu guztiak denak gazteleraz zeudela ikusten zuen, eta gehienik ere, geroago beste euskal libururen batekin edo osa zezakeen eremua. Baina, honek, noski, ez zuen betetzen. Oinarrietatik abiatu behar zen; lehenbiziko urteetatik dena euskaraz emateko moduak sortu behar ziren.

Nahi zuen liburua lantzeko zailtasun larriak aurkitu zituen. Ormaetxeak berak esaten dizkigu bidean aurkitu zituen eragozpen matasak nolako eta norainokoak izan ziren. Euskararen izaerari berari begira, euskaraz irakastea ezinezkotzat zutenen presio psikologikoa zetorren lehenbizi:

“Gura neban euskerazkoa izatia lenengotik gorako gustia, sasitik madaririk esin atara leikielako.

Neure ustia aurrera eroateko galazomeno ugari neukan. Batzuk e eta... biar sirela. Ganera edonori entzuten neutzan *euzkeraz eziñ irekatsi leikiela*. Uste ori euren buruetan ondo sartuta daukenak badira gaur be.

Gastelar eta erdeldunak esaten dabe, eurak euskeria esiñ ikasi leikiela, gatxa dalako; eta euskeldunak bai erderia, erresa dalako.

Esate ori sinistuten daben euskalduna, da tentela edo gextoa, euskeratik erderako beste bide dagoalako, erderatik euskerara.

Euskeldun errukarriak erderia ikasteko ipinten dan beste aletin, egingo balitz gastelar edo erdeldunak euskeria beraganduteko, bitzuek bardiñ ikasiko leukie, buru eta ikasbide bardiñak euki eskeru” (12).

(11) Ibidem, 110 or.

(12) Ibidem, 109 or.

Egileak, noski, ez du arrazoitzazko hoietan sinisten, ez du sinisten euskara berez zailagoa edo beste hizkuntzak baino eragozpen gehiagorik duenik.

Badira beste eragozpen batzuk ere eta Ormaetxeak hoiek ere aipatzen dizkigu. Non aurkitu euskal lan horren egilea? Lehenbiziko une hoietan ez zuen bere baitan lan hoietan sartzeko adorerik sumatzen; horrexegatik aurrena eman zuen pausoa, bere ideak beste bati eramatea izan zen. Baina, itxuraz, ez zuen inor lanean hasteko prest aurkitu, inork ez zion idea bete-betean onartu. Horrelaxe suertatu zen berak bakarrean eta pertsonalki egin beharrarena:

“Atzenas esan neban, neure ustia aintzat artu dau Aranak, eta Gipuzkoako ekautuak diñoena be alde dago.

Esan diren, da beste euren antzeko ustiak buruan igarota gero, erabagi neban, neure gurarijak betetako oraiño neikoa dot euskerazko *abecedario* bat egitia.

Neuk egitari eneritxon aiñbeste, eta gaur Europa-tik alderatuta dagoan eta euskerazko liburutxu bat argitaratuta eukan bati, aitetu neutzan neure asmuu, baña ez neban eser aurreratu. Beste batzuri esatiari eneritxon... eta neuk egiteko erabagi neban” (13).

AGAKIAren titulua ere bide batez gisara agertzen zaio, euskal alfabetoa sailkatzetik; ez du izen arraro eta aukeratu bila ibili beharrik izan:

“Lantxuari ekiñ neutzan, eta amaitutakoan ikusi neban A.B.tatik Greziarrak *Alfabetu* artu eben les, eta A.B.C.tik *Abecedario* erdaldunak, nik A.g.k.tik egiñ neikiela *Agakia* eta neure liburutxuari esarri izen ori.

Oneskero edonok esagutu leike, esan dan unerarte, neure buruan enabela euki, euskerazko *Abecedario-ari* izen barririk ipiñiteko amesik be, espabere umiari aiñbat ariñen eta ondoen irakurten erakusteko gurarija (izkiak eta beste gustia) jarten nebala umiak berera ikasiko eben les, gero euren arimako eta gorputzeko egikizun edo obligasiñoiek erakusteko al neban ondoen.

Ordurako eta arreskero batzuk les enitzan ibilli izen barrija asmetan” (14)...

Eskola berria Amoroton

AGAKIA egin baino aurretik abiatu zen Ormaetxea Amorotoko herrian eskola berria egitera, ber-berak esaten digunez.

1894an, aurretik zegoen bikarioa hil eta Ormaetxea bera parroku geldi zenean hasi zen guztia. Herriko maisua ere hilik zegoen ordurako; erregimen foralaren arauz herriak berak izendatutako maisua izan zen.

Maisu euskalduna desagertzean, liberalismoaren lege berrien harira, Amorotoko herrira maisu erdalduna etorri zen.

Maisu honen irakaskuntza lanen ondorioz, itxuraz, haurrak gaizki ikasten zuten kristau-ikasbidea eta beste gaietan ere lehen baino atzeratuagoak zebiltzen. Egiatzapen hau erabagikorra izan zen; egileak dionez, kristauaren eginkizunak herriko hurrei irakasteko asmoz, orduantxe hartu zuen herrian eskola

(13) Ibidem, 110 or.

(14) Ibidem, 110 or.

berria egiteko erabakia; bere egoerak eta parroku izakerak behartzen zuen hortara.

Eskolagintzan parrokiario jendeak lagundu zion, batzuk zura ekarriz, harria besteez, eta eraikuntzarako behar zen guztia; eskola oso azkar eraiki zen eta hurrengo urterako, 1895rako, bukatu zegoen. Zehaztasun osoz esaten digu Ormaetxeak berak:

“Danak uste eben beres, eta euskeldun irakastias baño obeto ikasiko ebela gustia. Laster agertu san, euskeldun irakastias dotriña erakusten ebala ondo, eta erdalduak es... Ostantzeko ikasbidietan be, bera sala geijago, au da euskeldun...

Jazoera orrek ikusi, eta aitetu dodan les, izentaturik elxgizon nagusi (párroco) amazortzireun da larogeta amalauko (1894) iraillaren ogeta seijan (26) artu neban asmua ikastegitxua (escuela) egiteko, neure egikizunak obeto betetako, eta neure mendekoak zerua erresago irebazi egijen. Eurek ekarri eusteaz arri, zur eta beste biar siran batzuk...

Jaijegunetako ikastegitxua edegi neban, amazortzireun da larogeta amabosteko (1895) Zemendijan” (15).

Sail hau bukatzeko, Amoroetoko herrian ze eskola moeta eraiki zen galde dezakegu; ez zen, ez, irakaskuntza guztiak emateko egina, batez ere kristau-ikasbidea irakasteko prestatu zen lokala baizik (16). Ahaztu ezinezkoa dugu bere lan osoa pastoral ikuspuntutik zihonik. Dena den, esperientzia oso interesgarria zen, eta zalantzarik gabe hortxe estreinatu zen AGAKIA.

III. AGAKIAREN EZAGUGARRI BATZUK

Liburxaren sorreraz esandako guztiak aparte, lantxo honen beste berezitasun batzuk deskribatuko ditut ondoren, hala nola, agiriko aparatua eta formatoa, barne taxuketa eta, azkenik, bere metodologia eta orrialde guztiak zehar sumatzen den pentsakera.

Agiriko aparatua eta taxuketa

1896ean argitaratu zen AGAKIaren lehenbiziko argitalpenari horri buruz esan behar dena, liburutxo txikia dela, formatoz eta tamainuz laburra, orrialdez ere laburra, guztira hamairu orrialde besterik ez zuelako. Eta orrialde guzti hoietatik, sarrerak bost hartzen zituen.

Atarian liburuxkaren izen osoa dakar: “AGAKIA. EUSKERAZ IRAKUÛ-TEN IRAKASTEKO”; eta azpikaldean, non argitaratu zen, tutea eta inprimategiaren izena. Bilbon inprimatu zen AMORORTUREN IRARKOLAN ARGITARATUA”. Lehenbiziko argitalpen hontan ez dator egilearen izenik, baina

(15) Ibidem, 109 or.

(16) Aipatua dugun Angel Sustaetak, gaur Amoroetoko parrokiako ardura daraman apaizak, bertako zaharrenen ahotik jasoa duenez, dotrina irakasteko prestatu zen lokalen bat ornen zen; lokal ori gaur ere hantxe dago elizari itsatsia (“eleizeari deusola”), baina gaur, noski, beste zerbitzu batzuetarako erabiltzen da.

bigarrenean elizgizon batek egina dela esaten da, “BIZKAIKO ELEXGIZON BATEK IRATZIJA”.

AGAKIA liburutxoan hitza eman bezala, 1897ean argitaratu zen AGAKIAren bigarren argitaralpena. Bigarren hau handitxoagoa da, zerbait zuzendua, eta hirurogeita bost orrialde ditu. Silabarioak berak zazpi orrialde ditu eta gainerakoa sarrera nahikoa zabalak eta azken irakurgaiak osatzen dute. Bigarren argitaralpen honen formatoa handitxoagoa delarik ere, poltsikoko liburu neurrian gelditzen da.

Salneurriei begira hasterakoan, Amorrorturen Liburutegian, Jardines kalea 3, Bilbon saltzen dela ikusten dugu, eta AGAKIA TXIKIA hamar zentimo (“Txori andi bat”) zen bitartean, AGAKIA NAGUSIA hogeitazentimo (“Txori andi bigaitik”) zen. Ehun ale erosten zituztenentzat baldintza bereziak zeuden, kasu horretan hamabost ale erregalatu egiten zirelako.

Oso zaila litzateke ze harrera izan zuen eta zeintzu eskoletara zabaldu zen jakitea; Amoroton erabili izan zela badakigu, baina besteei buruz ez dakigu ezer.

Barne taxuketa, argitaralpen bietan, antzerakoa da. Sarrera bat du haseran eta ondoren silabarioa; bigarrenean irakurgai batzuk sartzen zaizkio, otoitz batzuk eta hiztegitxoak ere bai. Bai sarrera eta bai irakurgaiak letra molde oso xumez eginak dira. Liburuotan ez da ezetariko marrazki edo apaingarririk agertzen; horrela ba, erabili zen paperari eta apaingarririk ez ekarteari begira, funtsezko silabario xume eta apala dela esan dezakegu. Dena den, guzti hontan ez du bere garaiko antzeko luburuetatik ezberdintasunik.

Orientabide metodologikoak eta pentsakera

Sarreretatik atera ditekete egileak erabili duen metodologi bidea.

Lehendabizi, Ormaetxeak oso ongi zekien metodologia bideren bat izentatu behar zena, egileak berak dioenez, liburu berezia, era hontako bakarra bait zen:

“Beste edozein liburuk eroaten badeu aurretik azalbidea, uste dot onek premiñe geijago dabela, onetarikorik estalako agertu euskeras orain arte. Irastera noia bada zerbait” (17).

Ondoren, silabarioko ikasgai ezberdinetarako aurrakusi diren ordena eta mailaketari buruzko oharrak sartzen ditu; bokaletatik hasten da, kontsonanteak jarraian, ezpainkariak eta hozkariak azkenik. Paralerroki, letrak elkartzuz eta batuz, haurrak ezagun dituzten gauza edo lekuen izenak egiten dituzten hitzak jartzen ditu.

Sarrera hauek maisuaren lagungarri idatziak direnez gero, euskal hitzen ortografia eta fonetikari buruzko ohar txo batzuk jartzen ditu, nahiz eta egileak berak dioenez ongi jakin, oraingoz behintzat, euskal gramatikari eta idazleen artean ez dagoela adostasunik. Bere arauok guztiek ez dituztela onartuko badakien arren, bigarren argitaralpenean orrialde batzuk eskeintzen dizkio azalpen horri.

(17) Saferie, Agakia, 3 or. Bilbon, 1896.

Sarrerako atal garrantzitsuetariko bat, maisu eta irakurleei euskaraz ikastea ez dela zaila esateko erabiltzen du. Lehen ere aipatua dugu ikuspegi hau. Euskara laister eta erraz ikas ditekete; haur euskaldunarentzat oso atsegingarria da euskal metodoz ikastea, esku artean darabiltzaten erdal metodoak aspertu eta nazkatzez gainera, ezer ez ematea lortzen bait dute; umeak ez du tutik ulertzen gainera.

Hau honela dela esateko eredu eta froga bezala, AGAKIAREN bitartez euskara erraz ikas ditekela azaltzeko, bere eskolako neskato batek egun gutxi-
ren buruan ikasi zuela esaten du:

“Ezan eztaizun agiririk estodala emoten orrenbeste ezateko, agertuko deutzut, badakidala nun dagoan zaspri urteko umetxua lengo AGAKIA amabost egunian ikesi ebana, baita erderazko abezia ikesi esinde ibillitakoa, beiñgoan eta beres lez ikesi ebana bere. Orék dagozan lekuan AGAKIA dakijanak gejago egongo direna, erres etara zeinke, eta bertako itzak aitu-
ten dituela, eta erderaskoa urtietan erabilli dabe esku artian eta ezango dot guzurtetako bildur бага, estabela ezetariko ezaupiderik artu erderasko abeza ofetatik” (18).

Irakurgaietan agertzen den pentsakerari buruz hizketan hasi aurretik, irakurgaiok luzeak, ikaragarri luzeak direla esan behar, eta aurreko silabarioarekin ez dutela inolako mailaketa metodologikorik; haurrak irakur eta uler dezan amesez, silaba eta hitz soil eta sakabanatutik aski zailak diren irakurgaiotara igarotzen da. Baina hortxe daude...

Azken orrialdeetan hiztegi laburtxo edo “Istokija” ematen da; orain artean euskal hiztegi hori nolatan ez den egin ulertzen ez duelako sartzten du egileak liburuxkan. Egia esan, hogeita hiruren bat euskal hitz dira, beraietako asko silabarioan agertuak azaltzeko jarriak; interpretazioa egiterakoan hitz teknikuak eta herri hizkuntzakoak ere sartzten ditu.

Irakurgaiotan agertzen den pentsakerari buruz, egileak ez du bat ere ahaleginik egiten bere asmo eta azken helburuak gordetzeko; agirian dagoenez, ez dihoa irakurten irakaste hutsean gelditzera, areago eginik, bizitza zintzoa bizi eta bide zuzenetik ibiliaz, Jaungoikoarekiko eta lagunurkoarekiko eginkizunak irakatsi nahi ditu batez ere.

Irakurgaiok, konkretuki, hamar aginduak zehar dabilta, hots, Jaungoikoaganako maitasunez, gurasoekin ditugun betebeharez, inori kalte egitetik aldentzez, lizunkeriatik urrutiratzetz, lapurretarik ez egitez, gezurrik ez esatez, inori izen onik ez kentzez eta eguna nola hasi, goiz-gauegarako otoitzak eta abar irakasten dituzte.

Ormaetxea eta Arana: Beraien arteko harremanak

Begirada laburtxo baten bitartez Ormaetxearen lana ikusia dugunez gero, une egokia litzateke, agian, bi idazle hauen arteko harremanak aztertu eta AGAKIAREN eta Aranaren “UMIAREN LENENGO AIZKIDIA” (1897) lanen arteko paralerrismoak finkatzeko; baina, oraingoz behintzat, asmo hau ezingo

(18) Ikus: “Irakasariari” in: Agakia, 8 or. Bilbon, 1897.

dut aurrera eraman behar hadinako zabalera eta sakontasunez, guztion aurrean dauden errazoiak direla eta.

Oraingoz haxe bakarrik esango dut, Ormaetxea eta Aranaren artean egiazko adiskide harremanak egon zirela, aurrerago aitzen emana dagoenez. Aranak ere behin baino gehiagotan aipatzen du gure egilea, eta gehienetan gramatika edo ortografia araren bati buruz. “Umiaren lenengo aizkidia” liburuaren sarreran dio AGAKIA bere lana baino aurreragokoa dela, baina oso gutxi ezagutzen dutela Bizkaian:

“Ondo dakit irazkitxo hau baño lenago argitara urten dala Elex-gison bizkaitar batek iratsi daun Agakia. Baña eztoz uste aréra txarík oneri egingo dautsozula, Agaka ori dauken bizkaitaræk gitxi diralako” (19).

Aranaren lan hau Ormaetxearen AGAKIA liburutxoa argitaratu zen urte berekoa da, Ormaetxearena baino handitxoagoa, baina neurritz eta formatoz eta taxukeraz elkarren antz handia dute. Sabinen lanak azkenean dakarren hiztegia ere handiagoa da eta hitzen itzulpena gazteleraz eta frantsesez ematen du, hitz berri batzuk ere sartzen dituelarik.

Aranaren liburua honela sailkatzen da: sarrera, silabarioa edo agakia, irakurgaiak eta hiztegia; bere euskara, noski, Ormaetxearena baino zailagoa eta gogorragoa da. Bere irakurgaien egitura aski ximplea den arren, darabilen hizkuntzak zaildu egiten du.

Irakurgaiotan agertzen den pentsakerari buruz, asmatzea ere erraza denez, haur eta irakurleei erlijioaz eta abertzaletasunaz zituen ideak batasun batetan ematen saiatzen da. Hari hontatikan, guraso, apaiz eta maisuei aberriarenganako maitasuna berrindar dezatela eskatzen die, izan ere, beraiek abertzaleak baldin badira, beraien esku dituzten gazteak ere horrelakoxeak izango bait dira.

(19) Ikus: “Bizkaiko irakasliari” in: “Umiaren lenengo aiskidia”, 6 or. Bilbao, 1897.